

## LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

### Gorka Estebez Mendizabal

Bilbon jaio zen 1959ko urtarrilaren 27an.

Prestakuntza akademikoa

Ekonomia Zientzietan lizentziatua da, enpresa arloan (merkataritza espezialitatea)

Ibilbide profesionala

- \* 1984/07/09tik 1985/01/31ra, administrazio kontratua Bizkaiko Foru Aldundian ekonomialari gisa.

Lan horretan ekonomialarien berezko zereginak egin ditu, batez ere, Ekonomiaren Sustapen eta Garapen Sailaren balantzeen analisiak.

- \* 1985/02/01etik 1987/02/17ra, bitarteko funtzionarioa Bizkaiko Foru Aldundian; lanpostu horretan aurreko kontratuaren lan berdinak egin ditu.

- \* 1987/02/17: IZENDAPENA KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA, ADMINISTRAZIO BEREZIAREN ESKALAN, GOI MAILAKO TEKNIKARIA; ESPEZIALITATEA: EKONOMIALARIA.

- \* 1988/05/19: Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzura lekuz aldatzea.

Ekonomialari gisa lan egin du beti, eta bere eginkizunak, funtsean, sailaren gastua kontrolatzea eta sailaren aurrekontua egitea izan dira.

- \* 1989/05/08: Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia Kudeaketaren Ataleko burua, bitarteko gisa.

- \* 1990/04/04: aurreko ataleko burutza behin-behinekoa dela berrestea.

(1998ko abenduan jakinarazten da behin betikoa dela).

- \* 1991/07/02: Bizkaiko Batzar Nagusien aholkulari ekonomikoaren postua esleitzea, zerbitzu-eginkizunetan.

Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako lana erakunde horretako arlo ekonomiko osoaren ingurukoa zen, esaterako, aurrekontuak, kontabilitatea, gastuaren kontrola, kontu-hartzailatza.... Horretaz gain, langileen kudeaketaren eta zerbitzu orokorraren (mantentze lanak) ardura zuen, eta batzordeetan idazkari gisa parte hartzen zuen.

- \* 1995/08/11: Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailera itzuli zen.

- \* 1995/09/25etik 2000/04/03ra, Aurrekontuen Zerbitzuko burua, zerbitzu-eginkizunetan.

Lanpostu horretan eginkizun hauek izan zituen:

- a) Aurrekontu orokorrak eta ekonomia planak prestatzeko gidalerro ekonomiko eta teknikoak proposatzea.
- b) Foru administrazioko nahiz beste administrazio bateko organoan arteko koordinazioa, beren aurrekontuei dagokienez.
- c) Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorreari buruzko aurreproiektua egitea.

- d) Kreditu osagarrien proiektuak, kredituak gehitzeko proiektuak eta eskumenen transferentziaren ondoriozko kredituei baja emateko proiektuak egitea, eta gainerako aurrekontu aldaketetarako nahitaezkoak diren txostenak egitea.
- e) Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren kontrola eta jarraipena.
- f) Gastu-programen analisia eta ebaluazioa.
- g) Aurrekontuekin zuzenean lotutako argitalpenak prestatzea.
  - 2000ko apiriletik 2003ko uztailearen 1era, BFaren Ogasun eta Finantza Saileko AURREKONTUETARAKO ETA EKONOMIA KONTROLERAKO ZUZENDARIORDEA  
Lanpostu horretan, Fiskalizazio Zerbitzua, Aurrekontuen Zerbitzua eta Auditoria Zerbitzua zuzendu, koordinatu eta planifikatzen dira.
  - 2003.07.01etik 2007ko uztailean, BFaren HERRI ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUEN ZUZENDARIA.
  - 2007ko uztailetik 2009ko uztailean, BFaren Herri Lan eta Garraio Saileko Errepideen zuzendari Nagusia.
  - 2009ko uztailetik 2015eko uztailean, BFaren Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko zuzendari nagusia.
  - 2015eko uztailetik gaur egun arte, BFaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko zuzendari nagusia.

## HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania.